

ESKU-HUSKA. Txartela lortzeko behar dute garaipena batzuek, aukerekin jarraitzeko besteek

Txapeldunek ere finalerdietarako sailkatu nahi dute, Idiazabalen

Xala-Lasa III.ak eta Esain-Errastik abiatuko dute gaur txapelketako laugarren jardunaldia

E. Telleria | DONOSTIA

Eskuz Binakako Txapelketako finalerdietan parte hartzeko bigarren txartela banatuta gelditu liteke gaur Idiazabalgo Igarondo pilotalekuan (22:30, ETB1). Xala-Lasa III.a txapeldunek dute txartel hori lortzeko aukera. Irabazi egin dituzte jokatu dituzten bi partidak, eta gaur hirugarrena irabazita, finalerdietan leudeke —Agirre eta Barriola dira hori lortu duten bakarrak orain arte—. Esain-Errasti kontrarioak oso bestelako egoeran daude. Galdu egin zuten aurreneko partida, irabazi bigarrena —Begoitza zen partida hartan Errastiren ordez— eta irabaztea beste erremediorik ez dute gaur, txapelketan aukerekin jarraitu ahal izateko. Partidarik zailena aukeratu dute ahal legin horretarako. Euren multzoko bikoterik sendoena osatu dute Xala-Lasak orain arte, eta iragarpen gehienak euren aldekoak dira gaur ere.

Arazoak atzo Atano XIII. arentzat Eibarko Astelenan

Juan Mari Juaristi *Atano XIII.* ak ez du topatu oraindik bere gustuko pilotarik. Eskatu ditu Zipirenean bere pilotak, baina denbora beharko du hark eskae-

SAILKAPENAK

A MULTZOA	Jo	Ir	Gal	TA	TK	Pt
1. Xala-Lasa III.a	2	2	0	44	31	2+13
2. Asier O.-Ruiz	3	2	1	59	44	2+15
3. Aimar O.-Pascual	2	1	1	38	28	1+10
4. Esain-Errasti	3	1	2	48	62	1-14
5. Goñi II.a-Elkoro	2	0	2	20	44	0-24

4. JARDUNALDIA

Gaur, Idiazabalen, Xala-Lasa III.a eta Esain-Errasti (22.30, ETB1). Bihar, Iruñean, Olaizola II.a-Pascual eta Goñi II.a-Rai (17.30, Tele 5).
Atsedena: Olaizola I.a-Ruizek.

B MULTZOA	Jo	Ir	Gal	TA	TK	Pt
1. Agirre-Barriola	3	3	0	66	27	3+39
2. Unanue-Peña.	3	2	1	53	45	2+8
3. Beras-Beloki	2	1	1	33	38	1-5
4. Titin-Zezeaga	2	0	2	28	44	0-16
5. Eugi-Goñi III.a	2	0	2	18	44	0-26

4. JARDUNALDIA

Etzi, Eibarren, Unanue-Peñagarikano eta Berasaluzeko VIII.a-Beloki (17.00, ETB1). Etzi, Logroñon, Titin III.a-Zezeaga eta Eugi-Goñi III.a.
Atsedena: Agirre-Barriolak.

ra osatzeko, eta Asegarek eta Aspek jarritakoekin ari da bitartean hautatzaile azkoitiarra. Atzo, Eibarko Astelenan, arazok izan zituen Asegarek aur-



JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

Ives Salaberri Xala, txapelketako partida batean.

keztutako lotean pilota egokiak bereizteko. Dezente luzatu zen horregatik Unanue-Peñagarikano eta Berasaluzeko VIII.a-Beloki euren partida erabaki-

garrirako egin behararako pilota aukeraketa. Arratsaldean ez zen arazorik izan Logroñon. Titin-Zezeaga eta Eugi-Goñi III.a aritu ziren han.

KONTRAKANTXATIK

Juan Inazio Zulaika

Nafarroa osoa



GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

Nazioarteko Pilota Federazioaren lehengo egoitza, Hondarribian.

Izenburuari erreparatu nion lehen-dabizi: «Arruabarrena: lesionatu ezean, ez dugu Goñi II.a txapelketatik kenduko»... —begi bistan da Mikel Goñiren beharrea daudela medioak, onerako edo txarrerako—. Ondoren, eta ondoan, EGUNKARIAKO orri berean, *Txokoan* sailean, beste albiste bati erreparatu nion, aurrekoa baino interesgarriagoa, sakonagoa behintzat. «Nazioarteko Euskal Pilota Federazioaren presidentea Dominique Boutineau atzo bildu zen Nafarroako eta Iruñeko Udaleko ordezkariekin. Hemendik aurrera Iruñean izango du egoitza berria Nazioarteko Federazioaren (...) eta euren diru laguntza eta egoitza berria onartu ditu», zioen berriak.

Herenegungo EGUNKARIAKO ale berearekin jarraituz, azkeneko orrietan, beste albiste batek piztu zuen nire arreta. Hain zuzen, Gaizka Aranguren Zaldiko Maldiko elkartearen eman behar zuen hitzaldiari buruzko elkarrizketa, «Nafarroa osoa», xede. Laburbilduko dut kazetari nafarrak Urzainki historialaria aipatuz kontatzen zuena. Aranismoaz eta atlantizismoaz aritu zen. Euskal Herria kontzeptu kulturala den heinean, Nafarroa da Euskal Herriaren adierazpide politi-

koa. Aranismoa etnizitate eta hizkuntzan baliatu zen euskaldunen kontzientzia berpizteko, hots, atlantizismoa, Euskal Herriko parte atlantikoa oinarri. Bide horretatik, ordea, nafar ugari, aranismoarekin identifikatzen ez zirenak alduz. Nire artean, hain justu, beso zabalik atek ireki dizkienak, Nafarroako Gobernua eta Iruñeko Udala, Nazioarteko Euskal Pilota Federazioakoei.

Euskadiko Federazioa iaz, Iruñean, Afiziatuen arteko Munduko Txapelketa zela eta, bertan Nazioartekoak egin zuen batzarrean, saiatu zen, eskubide kulturala oinarri, errekonozimendu politikoa lortzeko asmoz; eta ezezko biribila jaso. Geroztik, aranismoaren ondorengo hartu duten erabakia, presio sozialari amore eman, Nazioartekoak Irungego egoitza botatzea. Kito.

Kasualitatez badirudi ere, egoitzaz aldatzea aldaketa fisikoa metaforikoa bihurtu da. Nora jo dute Boutineau eta enparauek? Nor atara zaie bidera aterpe eskaintza: Nafarroa. Kasualitatea bada ere, Nazioarteko Euskal Pilota Federazioa berezkoa izan behar lukeen egoitzara itzuli da; hain justu, adierazpide politikoa «izan duen, egun izan beharko lukeen eta etorkizunean izango duen» (Aranguren) Nafarroara, osoa ez bada ere. Sinbolikoa nahi bada, berebiziko garrantzia du epe luzera. Oteizak bere ondare artistikoa Nafarroari eskaini zionean bezalaxe, ez dut uste haserreald baten ondorioa izan zenik, artistak bazekien zertaz ari zen.

Inozo, erromantiko eta ameslari izatea leporatuko diotela Aranguren bezala pentsatzen dutenei? Nik Oteizak esandakoarekin erantzungo nieke. «Hay que tener los pies en la realidad», me aconseja Artech, mi querido amigo Artech. ¿Qué realidad será ésta, si esta realidad es la que el artista y el escritor debemos crear, y mientras no la hagamos, esta realidad no existe? ¿Cómo pisar el terreno firme de la realidad, si la realidad que pisamos en el suelo, ya no nos sirve...».

TXOKOAN

PALA

Iriondo-Torrek lortu dute lehen puntua

Euskadiko Binakako Pala Txapelketako estreinako partida jokatu zuten atzo Daniel-Juan Pablok eta Iriondo-Torrek, Deportivon. Azken horiek lortu dute aurrengo txapelketako aurreneko puntua, bi anaia errioxarre ezustean irabazita (36-45).

ERREMONTA

Zeberio II.a-Aizpuruk bizirik jarraitzen dute

Garaipena beharrezkoa zuten atzo Zeberio II.a-Aizpuruk Binakako Erremonte Txapelketan aukerekin jarraitzeko. Horrek akuilatuta edo, mendean hartu zituzten Altuna II.a-Etxabe (40-34). Horrenbestez, bihar arte ez dira erabakiko finalerdiak.

JAIALDIAK

ATZOKO EMAITZAK GALARRETA.

Juaristi-Reklusa 35; Zalakain-Gaztelu 26. *Binakako Txapelketa*: Zeberio-Aizpuru 40; Altuna II.a-Etxabe 34. Ezkurra-Aizpuru 16; Altuna I.a-Lizaso 40. Matxin III.a-Badiola 30; Sarasua-Etxeberria II.a 28.

DEPORTIVO.

Urkijo-Imanol 24; Ziskar II.a-Larrinaga 40. *Binakako Txapelketa*: Daniel-J. Pablo 36; Iriondo-Torre 45.

GAURKO PARTIDAK

IDIAZABAL. 22.00 (ETB1, 22.30).

Alustiza-Balerdi / Bengoetxea VI.a-Bengoetxea V.a. *Binakako Txapelketa*: Xala-Lasa III.a / Esain-Errasti.